Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 2607355

Keztuak Erroldako arduradunak beste akats batzuk aurkitu zituen. ---------------------------------

**LAUGARRENA:** honen ondorioz, aipatutako eskriturak ZUZENTZEN DITU estatutuen 8., 9., 27., 31. eta 41. Artikuluak eta bigarren xedapen gehigarria, berridatziz hurrengo moduan: ---------------------------

**"8. artikulua.- Patronatua:** ----------------------

Patronatuak honako kide hauek izango ditu: --------

a) Orereta Kultur Elkarteak izendatutako hiru kide.

b) Haurtzaro Ikastola Koop.E-ak izendatutako kide bat. ------------------------------------------

Izendapena egiten duten erakundeen arautegiaren arabera egingo da kideen ordezkaketa. Patronatuak bere baitan hautatutako du Lehendakari bat.

**9. artikulua.- Kideak izendatzea:** ----------------

bi erakunde fundatzaileek askatasunez izendatuko dituzte Patronatuko kide izango diren pertsona fisikoak. -------------------------------------------

**27. Artikulua.- Kalitateko botoa:** ----------------

Lehendakariak kalitateko botoa izango du berdinketa

...ZA SAILA
...Erregistroa
...IA,
...AL
...Vasco

kasu guztietan. -----------------------------------

**31. artikulua.- Hitzarmen ekonomikoak:** ------------

Fundazioa behar bezala ibiltzeko, aurrekontuko sarrerak fundatzaileek egindako ekarpenez ere osatuko dira. Defizit egoerak ekiditeko erakunde sortzaileek egin beharko lituzketen ekarpenak honela banatuko dira: ---------------------------------------

a) Orereta Kultur Elkarteak %75 ekarriko du egoera hori galarazteko. ----------------------------------

b) Haurtzaro Ikastola Koop. E.k gainerako %25 ekarriko du. ----------------------------------------

**41. artikulua. Onuradunak:** ----------------------

Fundazioaren jarduera derrigorrezko hezkuntza bukatu duten ikasleei zuzenduko zaie, 16 eta 19 urte bitarteko gazteei nagusiki eta, batez ere, Oiartzun eta Errenteriakoei. Fundazioaren hezkuntza-jardunera biltzeko ikasleek Fundazioak indarrean dagoen legedian oinarrituta jarritako betekizunak bete beharko dituzte. ------------------

Ikasleak hartzeko irizpeak Hezkuntza Administratiboak ezarritako oinarri orokorren araberakoak izango dira. ---------------------------------------

**Bigarren Xedapen Gehigarria:** ---------------------

Patronatuak estatutu hauek aldatzea erabaki dezake

Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 2607353

Fundazioen 12/1994 Legeko 31. Artikuluan aurreikusten diren egoerak gertatuz gero, eta bertan aipatzen diren betekizunekin. ------------------------

**LAUGARRENA:** "Oiartzo Batxilergo Ikastola Fundazioa"-k egindako diru-sarreraren ziurtagiria ematen dit eta une honetan PROTOKORATZEN DUT. ------------

**EGILESPENA ETA BAIMENA**

Legezko oharpe eta oharrak adierazten ditut. ------
Osotara neronek irakurria, ekitaldi bakarrean, denek (hala oharterazten bait diot) berez egiteko duten eskubideari uko egiten diolarik, berrespena eman eta sinatzen du. ----------------------------
Agerlearen identitate, gaitasuna eta legitimazioaz, libreki bere baimena eman duela, emate hau legera egokituta dagoela, agerlearen borondatea behar den bezala adierazita eta eskritura honetan hiru foliotan A, 2606952, 2606953 eta honelaxe honetan bertanazaltzen den guztiz FEDE EMATEN DUT. ----------------

IZENPETU ETA ERRUBRIKATU: agerlea.- Zigilu, ikur, izenpe eta errubrika: PEDRO ANTONIO BARAIBAR. ------

------------------ ERANTSITA ------------------

- - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - -